



[img.itinari.com](http://img.itinari.com)



# Irteera Bardeak - Pitillas

**EKAINAK 9-11**

**Parte hartzaile kopuru mugatua: 25 PERTSONA**

**Hizkuntza: EUSKARA**



[www.pirineos.bike](http://www.pirineos.bike)



[i.pinimg.com](http://i.pinimg.com)



[espanafascinante.com](http://espanafascinante.com)

Aurten, Nafarroako hegoaldera joango gara, Bardeak eta Pitillaseko aintzira ezagutzera. Bertan Geologia, Botanika eta Zoologia ikusiko dira.


**GUZTIOK DAUKAGU ZERBAIT  
IRAKASTEKO ETA IKASTEKO!**

**ANIMATU ETA EMAN IZENA!**

Izena emateko bidali korreoa  
**maiatzaren 25a arte:**

[\*\*i.martin@ehu.es\*\*](mailto:i.martin@ehu.es)

# BARDEAK



Bardeak 42.500 hektareako Natur Parke bat da eta UNESCOk Biosfera Erreserba izendatu zuen. Nafarroako hego-ekialdean dago, Ebroko ibarreko sakonunearen erdian. Ereku horretako klima mediterraneo kontinentala da, tenperatura kontrasteak, haize bortitzak eta landaredi urria dira luraren eragile nagusiak.


Bardea Ebroko Sakonunearen Unitate Geologikoaren ipar-mendebaldean dago, Tertiarioko eta Kuarternarioko materialez soilik osatua, igeltsu-geruzak izan ezik. Material horiek guztiak jatorri kontinentalekoak dira, Behe Miozenotik (gutxi gorabehera 20 milioi urte lehenago) Goi Miozenoraino (duela 10 milioi urte). Bardea Zurian, higadura handiena jasan du eta bertan baitaude formazio ikusgarrienak, besteak beste Castildetierra eta Piskerra.

Bardeako floraren eta landarediaren interes botanikoa Ebroko depresioaren berezitasun klimatikoarekin lotuta dago; izan ere, idortasun horrek estepako komunitate eta espezieak mantentzea ahalbidetu du. Landaredi interesgarriena honako hauek osatzen dute: ontinarrak eta sisallarrak, espartalak, igeltsuen gaineko erromeralak eta gatzagak osatzen dituzten komunitate batzuk.

Bardeako fauna-komunitatea oso lotuta dago landaredi-motekin eta bertan dauden habitatekin beraz, horietako bakoitzean estepa iberikoen ezaugarri diren espezieak daude.



# PITILLAS



Pitillasko aintziraren 216 hektareek bizitza basatiaren oasia osatzen dute, soroak nagusi diren eremu horretan. Igelak, igarabak, tximeletak, bisoiak, apoarmatuak eta beste espezie asko elkarrekin bizi dira hezegunean, hegazti komunitate handiarekin batera.

Migrazio ibilbideko kokapen estrategikoari esker, antzarakumeek, koartzek, zingira mirotzek eta beste hegazti espezie batzuek babesa eta elikagaiak aurkitzen dituzte uretan, lezkadian eta inguruetan. Guztien artean txori zezena eta tximutxa nabarmentzen dira, habiak egiten baitituzte martxotik ekainera bitartean. Tximutxa landareen artean ezkututzen den txori txiki bat da, eta arren bibote beltz bitxiagatik jarri zioten izena. Txori zezena koartza txiki bat da, eta, kolore arre gorrixkaren ondorioz, ezkutuan egoten da lezkadian.

Hezeguneak ez du irteerarik itsasora; Nafarroako handiena da, eta Ebro bailarako garrantzitsuenetako bat. Aurreko mendeko hirurogeiko hamarkadan lehortu egin zuten, lurak laborantzarako erabili ahal izateko; hala ere, 1976tik aurrera, bere kaxa utzi zen, berez oneratzeko.

Balio ekologiko handiaren ondorioz, natura erreserba (1987) eta hegaztientzako babes bereziko eremu (1991) izendatu zuten: RAMSAR zerrendan dago nazioarteko garrantziko hezegune gisa (1996), eta Natura 2000 Sarearen barruan dago, hau da biodibertsitatea kontserbatzeko eremuen Europako sarean.



# EGITARRAUA

## EKAINAK 9

16:00 Farmazia eta Letren Fakultateko parkinean geratuko gara  
Arguedaserantz irtetzeko (2 h, 142 km)

18:00 Aterpetxera helduko gara:



20:30 Afaria (Etxetik eramandakoa)

## EKAINAK 10

Gosaria aterpetxean

Interpretazio Zentroari bisita

Lehen ibilbidea: Castillo de Peñaflor (11,3 km).

Bazkaria (Etxetik eramandakoa)

Bigarren ibilbidea: Piskerra (6,7 km).

Afaria aterpetxean



[www.bardenadothraki.files.wordpress.com](http://www.bardenadothraki.files.wordpress.com)

## EKAINAK 11

Gosaria aterpetxean

Pitillasera joan (36 min, 40,3 km)

Pitillaseko Aintzirako ibilbidea (11,7 km).

Bazkaria (Etxetik eramandakoa)

Gasteizera itzuli



[www.retratos-del-mundo.blogspot.com](http://www.retratos-del-mundo.blogspot.com)

## ANTOLAMENDUA

KOTXEETAN JOANGO GARA (5-6 Kotxe) eta ibilbideen artean ere kotxea erabiliko dugu, beraz, izena ematerakoan, mesedez, jakinarazi kotxerik duzun.

Aterpetxean lo egiteko literak daude, baina ekarri LO-ZAKUA.

OSTIRALEKO AFARIA, LARUNBAT ETA IGANDEKO BAZKARIA etxetik prestatuta eramango du norberak. GOSARIAK eta LARUNBATEKO AFARIA aterpetxean prestatuko dizkigute.

# ZER BEHAR DUZU?



Astebururako norberen arropa eta oinetakoak. Kontuan izan edozein eguraldi suerta daitekeela: hotza, beroa, euria, eguzkia..., beraz, denetatik eraman. Horretaz gain:

- Lo-zakua
- Jatekoa:
  - Ostiraleko afaria: entsalada, pasta edo horrelakoa
  - Larunbateko bazkaria: bokadilo edo horrelakoa
  - Igandeko bazkaria: bokadiloa.
- Gidak, prisamatikoak edo horrelakorik
- Umore ona

## PREZIOAK

Aterpetxean lo egitea 2 gau + 2 egunen gosaria: **36€/pertsona**

Afaria bertan hartzen denaren arabera, parrilla badute.

Gasolina kotxean joaten direnen artean ordainduko da, **350 km** inguru izango dira guztira, asteburu osoan.

## IZEN EMATEA

Izena emateko bidali, maiatzaren 25a baino lehen, mezu bat hurrengo helbidera: [i.martin@ehu.eus](mailto:i.martin@ehu.eus).

Hurrengo datuak bidali mezuan:

- Izen abizenak
- Kotxerik duzun
- Gosariak eta larunbateko afaria nahi ez badituzu, abisatu
- Intolerantziak edota elikadura errestrikzioak

## IBILBIDEEN INFORMAZIOA

1 <https://turismodenavarra.com/wp-content/uploads/2020/12/CASTILLO-DE-PENAFLOR-PDF.pdf>

2 <https://turismodenavarra.com/wp-content/uploads/PISKERRA-2-PDF.pdf>

3 <https://es.wikiloc.com/rutas-senderismo/vuelta-a-la-laguna-de-pitillas-60219644>